




Mikro-**ipuin** lehiaketa



Irakurle hori: mikro-liburu honetan hogeita lau testu biltzen dira Horietatik hogeita lau sarituak izan dira **Euskokultur** eta **Pamiela** **etxeak** antolatuta duten hamaikagarren **Mikro-**ipuin** lehiaketan**. Horietan batera **Zurine Hidalgo**ren mikro-**ipuin** bat ere aurkituko duzu. Guztiak zuretzat opari.



Euskokultur Fundazioak eta **Pamiela Argitaletxeak** antolatutik:

- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendua.
- Ipuin bakoitzak gehienez 100 hitz izanen ditu.

• Saria:

Pamiela Argitaletxearen liburu sorta.

Irabazlearen ikastetxean

Zurine Hidalgoren

bisita eta topaketa.



Mikro-**ipuinak** 2017



Mikro-ipuinak

Iruñea, Lekaroz, Ortzaize
2017



Azala:
Miren Asiain

Gure eskerrik beroenak epaimahaikide lanetan
aritu diren lagunei:

AINGERU EPALTZA, INMA ERREA,
ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN, JON ABRIL,
FERTXU IZQUIERDO

Laguntzailea:



© Euskokultur Fundazioa, 2018
(www.euskokultur.eus)

© Pamiela argitalpen honengatik
Diseinua eta fotokonposizioa:

Pamiela. Ezkabarte industrialdea

K31 kalea. 31194 Arre (Nafarroa)

Tel.: 948 32 65 35

pamiela@pamiela.com

www.pamiela.com

L.G.: Na-1170/2018

Nafarroan Rodona Industria Gráfícaak moldatu eta egina
Iruñea

Printed in Navarre

Mikro-ipuinak

Iruñea, Lekaroz, Ortzaize
2017

«Mikro-ipuin lehiaketa 2017» epaimahaiaren akta

Mikro-ipuin Lehiaketaren hamaikagarren edizioa, 2017an egin-dakoa, aurrekoen bide beretik joan da. Nafarroako eta Iparraldeko eskualde guztietako ekarpenak izan ditugu, eta urtero ikasle idazle berek parte hartzen ez badute ere, badira aldi orotan aurkezten direnak, baina badira lehenengo aldiz parte hartu dutenak ere.

Alde horretatik, esan behar dugu epaimahaia osatzen dugunon artean ere edizio honetan izan ditugula lagun berriak, bestetan aritutako batzuk oraingoan aritzeko ezinean izaki. Aingeru Epaltza, Inma Errea eta Itziar Diez de Ultzurrunekin batera Jon Abrilek eta Fertxu Izquierdok jardun dute epai lanetan. Ongi etorri eta gerokoetan ere bidelagun izan daitezela Mikro-ipuin Lehiaketan.

Ipuin kopuruak aurten zertxobait behera egin badu ere, ez da hala gertatu epaimahai honen eginbehar zailarekin, lanen kalitatea ikusita edota ipuinetan aurkitu ditugun aleak galbahetzekoan sakonki gogoeta egin behar izan baitugu.

Izan ere, nabarmendu beharra dugu idazleek aukeratu dituzten gaiak ez direla nolanahikoak izan; gaurko gaiak izan dira, jendartean sarritan minez eta era lazgarrian bizitzen ditugunak. Egunerokotasuna darie eta gazteek ez diote muzin egiten jendearen gogoia maiz astindu duten gertaerak tratatzeari.

Eta, gainera, harrigarria da zenbaitetan zeinen gordin, zuzen eta apaindurarik gabe aurrean jartzen dizkiguten sakonki hunkitzen gaituzten gai horiek.

Esan gabe doa ez direla falta, bestalde, joera klasikoagoak, ipuinen tankera tradizionalagoa darabiltenak. Denetarik izan baita, ohi den bezala, edizio honetan ere.

Emaitzak lortzekotan zailtasun handiena izan dezakeen A eredu-ko lanei dagokienez, esan behar da urtez urte eta ahaleginak ongi xahututa, hizkuntza erabiltzen trebezia eskuratzen ari direla etengabe. Dударik gabe, eredu horretako irakasleek merezi dute epaimahai honen txaloaldi beroa.

Saritu ditugun ipuinak batzuk izan dira, lurralde askotarikoak, baina baziren beste batzuk ere merezimendu handia zutenak ere.

Aipa ditzagun kategoria bakoitzean saria edo ohorezko aipamena jaso dutenak:

D EREDUAN, **Lehen Hezkuntzako kategorian**, **JAGOBA ARANBARRI RIA** saritu dugu, ***Bera horrela sentitzen da, berak horrela izan nahi du*** ipuinagatik. Gaurkotasun handiko gaia darabil, sentiberatasuna eta heldutasuna erakusten ditu. Norberak zer izan nahi duen argazki paregabea egin baitu hitz gutxirekin.

Sail horretan Ohorezko aipamena merezi izan dutenak honakoak:

AIZEA JARAUTA ALVAREZen ***Gabonetako ametsak*** ipuina, zehaztasunagatik. Ongi neurtua, kontaera trinkoa, ahalik eta gauza gehien hitz gutxienetan. Eta bukaerak kontrapuntua artzen du; **JUNE IGUIÑEZ RUIZ**en ***Berdintasuna***, gaiaren funtsa bi esalditan

adierazi duelako. Egungo erronka sakon bat ongi irudikatua bere laburrean; eta **ARATZ ELIZALDE DOMINGUEZ**en *Lore botoiduna*, Irudiak eta elementuak ederki landutako ipuina, aberatsa eta gustu handiz izkiriaturikoa.

D EREDUAN, Bigarren Hezkuntzako kategorian, **XABIER LOPEZ ZABALETA** izan da saritua, *Oroimena* lanagatik. Indar izugarrikoa da ipuina, bere bost esaldietan gaurkotasun beteko gaia ongi asko tratatzen baitu, egoeraren latza gordinki agertuz eta dramatikotasuna erantsiz.

Sail horretako Ohorezko aipamenak jarraian datozenak:

AITOR OVEJERO CASTILLOren *Hiltzailea*, non izenburua bera, mamia bertan bilduz, ipuinaren parte baita. Baina narratzaile hilaren zauriak sendaturik, ordea; **MADDALEN IBARRA SAN MARTIN**en *Bortz-aketa*. Oda txiki bat guztion ahotan dabilen afera lazgarri baten inguruan. Adierazkortasuna, saminaren adierazpide ederra. Irudi indartsua, ongi ekarritako gaia. Izenburuak kolpe handia ematen du; eta **IZASKUN ARANGUREN YABAR**en *Ezusteko sorpresa*, egungo ohituretan sarri ematen den egoera batean tentsioa ezarri, gero gertaera biribildu eta amaieran umore iradokorra emanez ondua.

A EREDUAN, Lehen Hezkuntzako kategorian, **XABIER VILLANUEVA CALVO** izan da saria jaso duena, *Nire txori bihurria* ipuinagatik. Sakontasunetan sartu gabe, ipuin umoretsua egin du, hitz jokoari estuki lotuz baina jolas atsegina lortuz. Hizkuntzaren moldagarritasuna erakutsi du.

Ohorezko aipamena merezi dute ondoko hauek:

NOA GARCIA CASTAÑARESen *Arkatz*a, ohiko elementuak erabiliz eta kontagai xume bati helduta, bukaera berezia asmatu duelako, pertsonifikazioari etekina ateraz; **NEREA ERBITI ADRIAN**ren *Eroski*, izenen eta markaren arteko jolasean, afera oso prosaikoa beste mundu bateko pertsonaiekin erkatu du, eta bukaerak ixten du kontua, lau lerrotan zertua; eta **AIMAR LEGAZ LEZAUN**en *Hau negua!*, abilezia erakutsi baitu kontaeran, *in crescendo* doan amets-ipuina. Laburki, ibilbide luze samarra margotu du hitzez. Ongi idatzia.

A EREDUAN, Bigarren Hezkuntzako kategorian, IKER SÁNCHEZ MACÍAS izan da irabazlea, *Lukas eta armairua* lanagatik. Ezinegona sortarazten du, misterioa, obsesio baten agerpena, zirkularitate batean sartuta. Bukaera egokia da, datu batez halabeharra adieraziz.

Ohorezko aipamenak hurrengoak ditugu:

NATALIA MURILLO URIZen *Koloreen usaina*, giro poetiko batean sartu, naturaltasun handi batez, baina amaiera argigarri eta harrigarria eman baitio; **IOAR HERRERO MARCILLA**ren *Lapurretak museoan*, detektibe-ipuina laburra eta agian topikoa, baina ongi, bizi kontatua. Bukaeran du grazia, umore ukituak ipuinaren arintasuna osatzen baitu; eta **LUCÍA ORDÓÑEZ RUIZ**en *Arrantzale zoriontsua*, egitura klasikoa duen ipuina, hizkera egokia darabilena. Ongi kontatua eta detaile jatorrak agertzen ditu.

Iparraldeko ikasleen sariketan, non ikastoletakoak (Seaska) eta beste ikastetxetakoak lehiatu diren, **Lehen Mailako kategorian** saritutakoa hauxe da, **ELIOT LARRIEU**, *Ene futbolari hoberena* izeneko lanaz. Gai arrunta aukeratu duen arren, bertan aipagarria da erakusten duen miresgarritasuna, non ohiko zaletasun baten inguruan elementu biziak eta arruntak sartu dituen, baina kontakizuna misteriora bihurtzen du, amaieran zirkulua osatuz eta irakurleari agur batez geroa proposatuz.

Ohorezko aipamena merezi izan dute honakoek:

KETI HALSOUETen *Kutxa magikoa* ipuina, ederki kontatutako fantasia, ongi egituratua, eta bukaeran baikortasuna dakarrena; **MAIXA IGOA**ren *Xakurra edo lapina*, aipatzekoak dituen freskotatua eta umore xumea, delikatuak; eta **MARTTA ERROTABEHERR**en *Bixkotx ona*, etxeko elementu tradizionalaz osaturikoa, hizkuntza adierazkorra eta elkarrizketa baliaturik ondu ipuina.

Iparraldeko ikasleen Bigarren Mailako kategorian honakoa da saria lortu duena, hots, **BASTIEN BRISÉ**, *Behien eta xerrien arteko injustizia* lanaren egilea. Ahozko tradizioetik heldu dirudien ipuina, fabula girokoa eta maisuki agertarazia. Istorioa biribila da, eta badu ironia karga, izenburu luzea ongi justifikatua ateratzen baita.

Ohorezko aipamena izan dutenak jarraian:

PEIO BIREMONTen *Onddo handiena* izenekoak, hau ere kontra tradizionalekoa da, laburra izanik ere gradazioa aurkitu duena. Bi hitzen errepikapenak arrazoitzen du gertaera nagusia. Bestalde,

umoretsua da; **MIKEL ANXOLABEHERE**ren *Txanogorritxoren abentura* ipuina, klasikoaren bertsio itzulikatua, beste itzuli bat eman baitio istorioari. Ez du itxita uzten, hala ere, geroago zer datorren irakurleak asma dezala; eta azkenik **MAÑUEL IBARLUCIA**ren *Harrizko begiak* lana, nahiko ipuin «gotikoa», ederki lortzen duena giro beltz eta goibela.

Honaino sarituak edo goraipatuak izatea merezi dutenak. Baina idatzi duten ikasle guztiek merezi dituzte gure esker hitzak. Hurrengoan espero zaituztegu.

Epaimahaiko kideak:

Jon Abril, Itziar Diez de Ultzurrun, Aingeru Epaltza, Inma Errea,
Fertxu Izquierdo

Mikro-ipuin lehiaketa 2017



Zuriñe Hidalgo

JAGOBA ARANBARRI RIA

AIZEA JARAUTA ALVAREZ • JUNE IGUÍÑEZ RUIZ • ARATZ ELIZALDE DOMINGUEZ

XABIER LOPEZ ZABALETA

AITOR OVEJERO CASTILLO • MADDALEN IBARRA SAN MARTIN

IZASKUN ARANGUREN YABAR

XABIER VILLANUEVA GALVO

NOA GARCIA CASTAÑARES • NEREA ERVITI ADRIÁN • AIMAR LEGAZ LEZAUN

IKER SÁNCHEZ MACÍAS

NATALIA MURILLO URIZ • IOAR HERRERO MARCILLA • LUCÍA ORDOÑEZ RUIZ

ELIOT LARRIEU

KETI HALSOUET • MAIXA IGOA • MARTTA ERROTABEHERE

BASTIEN BRISÉ

PEIO BIREMONT • MIKEL ANXOLABEHERE • MAÑUEL IBARLUCIA



Sortzean aske naiz

ZURIÑE HIDALGO



«**M**ikroipuinez osaturiko makroipuin bati hasiera eman behar zion. Ez zekien nondik hasi, ardura handia sentitzen zuen, beraz, hasieratik hastea onena izango zela pentsatu zuen...»

Kaixo! Zuriñe dut izena eta txikitatik sortzea maite izan dut. Sortzeak askatzen nau eta sortzean aske naiz. Ez dago sorkuntza polita ala itsusia, ona ala txarra, zuzena ala okerra... sorkuntza ezin da epaitu, artea delako, eta artea, libre da. Horregatik maite dut sortzea.

Artea bezala, sormena ere libre da, beraz, lagunok, irudimena askatu eta sormenaz, sortu! Izan ere, modu batera zein bestera, mikroipuin hauetan guztietan ekintza ederra burutzen ari gara: askatasuna irudikatzen.

Zenbat istorio, zenbat bizipen, zenbat pertsona... mikroipuin hauen atzean. Eta orain, idazteari utzi eta mikroipuinaren barrenean bi-daiatzeari ekingo diot.

Zuek ere, gozatu hegaldiaz!

D Eredua Lehen Hezkuntza



JAGOBA ARANBARRI RIA
AIZEA JARAUTA ALVAREZ
JUNE IGUIÑEZ RUIZ
ARATZ ELIZALDE DOMINGUEZ

**Bera horrela sentitzen da,
berak horrela izan nahi du**

Jon bere ohe arrosatik atera da. Bere armairu morera joan eta ireki egin du. Kamiseta arrosa eta media moreak aukeratu ditu. Gosaltzera joan da. Klasea bukatzean arropa dendara joango direla esan dio amak.

Bere printzesa motxila hartu eta etxetik atera da. Autobusean, beti bezala, pasabidearen bukaeran eseri da, leiho ondoan.

Besteak zirikatzen hasiak:

—Jon maritxu! Jon maritxu! —Joni malko bat erori zaio.

Klaseak bukatu dira eta amarekin arropa dendara joan da. Neskentzako pasabidean sartu da, baina autobusa burura etorri zaio. Pixka bat gelditu da baina aurrera jarraitu du.

Bera horrela sentitzen da. Berak horrelakoa izan nahi du.

JAGOBA **A**RANBARRI **R**IA
Argia Ikastola (Tutera). 6. maila
LHko LEHEN SARIA

Gabonetako ametsak

Etxe txiki batean bizi naiz. Ez dago berogailurik, eta neguak beste etxe batzuetan baino gogorragoak dira. Gabon afaririk ere ez dago. Lau anaietatik txikiena naiz.

Jostailuen aldizkari bat ikusi dut. Azkeneko orrian, Olentzerorentzako eskutitza dago. Gauza bakar bat eskatuko diot. Gauza bat, gauza bakar bat eskatu ahal dela badakidalako. Kotxe telegidatu bat eskatuko dut.

Abenduaren 25a iritsi da. Goiz da baina ni sukaldera noa. Oso urduri nago. Iritsi naiz. Nire izena daukan kaxa txiki bat aurkitu dut. Kotxea askoz handiagoa zirudien aldizkarian. Kaxa ireki dut. Kotxea beharrean hiru argizari aurkitu ditut. Eskutitza gaizki idatziko nuen. Argizariekin kotxe telegidatua margotuko dut.

AIZEA JARAUTA ALVAREZ

Argia Ikastola (Tutera). 6. maila

LHko OHOREZKO AIPAMENA

Berdintasuna

Baziren behin mutil bat eta neska bat. Mutilak neskari ponpoxa, ponpoxa erraten zion, eta egun batean neskak erran zion ponpoxo, ponpoxo eta mutila aho zabalik gelditu zen.

JUNE IGUIÑEZ RUIZ

Ricardo Baroja Eskola Publikoa (Bera). 5. maila

LHko OHOREZKO AIPAMENA

Lore botoiduna

Bazen behin lore botoidun bat, Zubietako lorategi batean bizi zena. Lorea botoi koloretsuz osatuta zegoen. Botoi izena zuen baina ez zitzaion botoiduna izatea gustatzen.

Egun batean, Botoiri botoi bat erori zitzaion eta pentsatu zuen egunero bat galduz gero, botoirik gabe geldituko zela. Baina ez, lorategiaren jabeak, flamenkoaren mokoaren punta bezain orratz zorrotzez josi zizkion denak. Aste bat geroago jabeak, asko handitu ziren beste lore batzuk landatu zituen.

Botoik, lore berriei botoi guztiak kentzeko eskatu zien baina ez zioten kasurik egin. Lorea negar eta negar hasi zen kasu egiteko. Noizbait kasu egitea lortu zuenean, larrosek, beren arantzekin hariak hautsi eta batzuk askatu zituzten. Margaritek berriz, petalo luze eta finekin, kili-mak eginda denak askatu zituzten.

Handik aurrera, Lore botoiduna oso zoriontsua izan zen.

ARATZ ELIZALDE DOMINGUEZ
Pulunpa Herri Eskola (Ituren). 5. maila
LHko OHOREZKO AIPAMENA

D Eredua **B**igarren **H**ezkuntza



XABIER **L**OPEZ **Z**ABALETA
AITOR **O**VEJERO **C**ASTILLO
MADDALEN **I**BARRA **S**AN **M**MARTIN
IZASKUN **A**ARANGUREN **Y**ABAR

Oroimena

Joxe Migel karrikan dago, alde guztietara begira. Alzeheimerra du eta ez da oroitzen zer ari den Bilboko karriketan. Ez da oroitzen norekin dagoen ezkondua, ez da oroitzen non bizi den. Hobe hola, egiazki ez baitu lagunik, ez du familiarik, ez du etxerik. Ez da oroitzen bere buruaz bertze egitera etorri dela Bilborat.

XABIER LOPEZ ZABALETA

Lekaroz BHI (Lekaroz). DBH 3

BHko LEHEN SARIA

Hiltzailea

Bera ezagutu nuenean, bihotzeko zauri txiak sendatu zizkidan, baina berak egin zidan, aldi berean, zauririk handiena.

AITOR OVEJERO CASTILLO

Iñigo Aritza Ikastola (Altsasu). DBH 3

BHko OHOREZKO AIPAMENA

Bortz-aketa

Belztu dizkidazue hezurak. Usteldu dizkidazue sabeleko loreak. Gelditu didazue barruko urruma.

Orain beti da arnasa sakona, astuna. Baina ez da ia airerik heltzen, bizi gutxi heltzen da. Bizkarra tolestu didazue, jada ez dut eguzkia ikusten (horregatik nago hain zuri, hain zurbil), bakarrik ikusten dut zorua. Ez dut ahistzen eztarritik atera nahi duen oihua.

Gelditu dira erlojuak egun hartatik: 2017-07-07.

Urte bat pasa den arren oraindik esnatzen naute amesgaiztoek gauerdian, oraindik daukate amaren besarkadek zapore samina.

MADDALEN IBARRA SAN MARTIN
BHI Iturrama (Iruñea). 1. Batx.
BHko OHOREZKO AIPAMENA

Ezusteko sorpresa

Goiz hartan pozik altxatu nintzen, maite nuen tipoa ezagutuko nuen. Parkean bostetan. Hori zen bidali zidan mezua. Ordua iristen zen eta geroz eta urduriago nengoen. Parkera iristean ez zegoen inor eta hortik gertu zegoen banku batean eseri nintzen.

Bat-batean gizon zahar bat hurbildu zitzaidan eta nire maitearen izena esan zuen, bera zen. Ezin nuen sinetsi. Arazo larri batean sartua nengoen.

IZASKUN ARANGUREN YABAR

Paz de Ziganda Ikastola (Atarrabia). DBH 3

BHko OHOREZKO AIPAMENA

A Eredua Lehen Hezkuntza



XABIER **V**ILLANUEVA **C**ALVO
NOA **G**ARCIA **C**ASTAÑARES
NEREA **E**RVITI **A**DRIÁN
AIMAR **L**EGAZ **L**EZAUN

Nire txori bihurria

Atzo nire txoriak hartu du nire telefonoa eta aldatu ditu letrak «a» eta «e».

Nire lagunari idatzi diot mezu hau:

—Ni: Keixo Txame, atxako-lenik bedego biherko?

—Txema: Ez dut ulertzen

—Ni: Berketu! Nira txorie oso bihurrie de.

—Txema: Zer?

—Ni: Usta dut nira txoriek hertu duale nira talafonoe.

—Txema: Ahhhhhhhhhhhh!!! Mezua ulertze-ko nik aldatu behar dut «a» letra «e» letragatik eta aldrebes.

—Ni: Bei!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!! Hori de.

—Txema: Bai, hori da. Az dego atxako-lenik. Garo erta!

—Ni: Garo erta!

XABIER VILLANUEVA CALVO
Calasanz-Escolapios (Iruñea). 5. maila
LHko LEHEN SARIA

Arkatza

Goizean txirrinak jotakoan, altxa eta lan egiteko ordua da. Batzuetan aspertua nago nire arerio den boligrafoa nahiago dutelako. Ustedut existitzen den materialik txarrena dela. Egun batean gauza txar bat gertatu zitzaidan: irakaslearen mahai gainean nengoen! Hain zuzen ere objektu galduen atalean, eta dena boligrafoarengatik, estutxetik bota zidalako. Sei egun igaro nituen han bakarrik, arkatz zorrotz baten ondoan, baina haur guztiek patioan behera joan zirenean, borragomak nire urratsak jarraituz eta ezabatuz aurkitu ninduen eta etxera itzuli nintzen, estutxera. Egun hartatik aurrera, arkatz guztiak borragoma batekin datoz.

NOA GARCIA CASTAÑARES

Felix Zapatero Eskola (Valtierra). 6. maila

LHko OHOREZKO AIPAMENA

Eroski

Eros eroskira joan da eroatera baina ez du
ezer erosi, erosita baitago dena.

Bere emazte Erak erosi du.

NEREA ERVITI ADRIÁN

Felix Zapatero Eskola (Valtierra). 6. maila

LHko OHOREZKO AIPAMENA

Hau negua!

Negua da eta elurra egiten du. Nire lera hartzen dut eta aldapan behera noa. Bat batean, zulo batean erortzen naiz eta buruan kolpe bat hartzen dut. Ezin dut irten zulotik. Biratzen dut eta tunel bat ikusten dut. Zikina eta bustita dago, baina sartzen naiz... Irteten naiz eta galdutako herri bat ikusten dut...

Eta... pixkanaka hurbiltzen naiz. Kaleak hautsita daude eta ez dago inor. Etxe batean sartzen naiz, argi bat ikusten dut, ate bat irekitzen dut eta... ohean esnatzen naiz.

AIMAR LEGAZ LEZAUN

Calasanz Ikastetxea (Iruñea). 5. maila

LHko OHOREZKO AIPAMENA

A Eredua Bigarren Hezkuntza



IKER **S**ÁNCHEZ **M**ACÍAS
NATALIA **M**URILLO **U**RIZ
IOAR **H**ERRERO **M**ARCILLA
LUCÍA **O**RDÓÑEZ **R**UIZ

Lukas eta armairua

Ni Lukas naiz eta 13 urte ditut, etxean bizi naiz herri txiki batean, nire familiarekin.

Gau batean nire gelan nengoenean, zarata entzun nuen armairuan, joan nintzen ikustera zer gertatzen zen, baina ireki nuenean eta sartu, iraganera itzuli nintzen, justu zarata entzun nuen momentura. Sartu nintzen berriro baina gauza bera gertatu zitzaidan.

Ni Lukas naiz 40 urte ditut eta jarraitzen dut armairuan sartzen.

IKER SÁNCHEZ MACÍAS

Julio Caro Baroja BHI (Iruñea). DBH 2

BHko LEHEN SARIA

Koloreen usaina

Kolore gorriak marrubi usaina dauka.
Kolore horiak banana usaina dauka.
Kolore moreak mahats usaina dauka.
Kolore laranja mandarina usaina dauka.
Kolore berdeak sagar usaina dauka.
Kolore marroiak txokolate usaina dauka.
Silvia irakatsi dit koloreen usaina, berak
ezin ditu ikusi eta.

NATALIA MURILLO URIZ

Julio Caro Baroja BHI (Iruñea). DBH 1

BHko OHOREZKO AIPAMENA

Lapurretak museoan

Edward Munch-en *Oihua* irudia Osloko museotik desagertu da eta poliziak munduko bi detektibe hoberenak deitu ditu: Zimski eta Butarke. Koadroaren lekuan lapurrak pista bat utzi du, baina ez dakite bere esanahia.

Detektibeak Estokolmora, Londresera eta El Cairoko museoetara joan dira; han ere koadroak lapurtu dituzte eta hiru pista gehiago daude.

Norvegiara itzuli dira eta pistak elkartu dituzte. Koordinada batzuk dira eta horiekin koadroak aurkitu dituzte. Lapurra museoko zaindaria zen, museoko lapurretak telebistan ateratzea nahi zuen, museoak garrantzitsuak izango ziren eta berari gehiago ordainduko zioten.

Azkenean ez zen kartzelara joan, baina hila-bete batez soldata gabe lan egin zuen.

IOAR HERRERO MARCILLA
La Compasión-Escolapios (Iruñea). DBH 1
BHko OHOREZKO AIPAMENA

Arrantzale zoriontsua

Arrantza egiteko egun oso euritsua zen. Jon arrantzaleak bazekien, baina janaria bere familiari ekarri behar zion. Txalupa txikian sartu zen Ega ibaia nabigatzeko. Eguraldia larriagotu egin zen eta argi indartsuak zeru grisa argitu zuen.

Orduan agertu zen ikusitako arrain handiena. Tiraldi handia egin zuen, baina tilapia beltz txiki bat harrapatu zuen. Etsita eta nekatuta itzuli zen arrain txikiarekin.

Bere emazteak jaso zuenean, esan zuen: zer moduz gaurko eguna? Oso txarra, esan zuen Jonek.

Arraina sukaldatzerakoan, harri txikiak topatu zituen: diamanteak ziren.

LUCÍA ORDÓÑEZ RUIZ

IESO Joaquín Romera (Mendavia). DBH 2

BHko OHOREZKO AIPAMENA

Iparraldea **L**ehen **M**aila



ELIOT **L**ARRIEU
KETI **H**ALSOUET
MAIXA **I**GOA
MARTTA **E**RROTABEHERE

Ene futbolari hoberena

Peio niz eta egun ene futbolari hoberena ikusi dut. 6-0 irabazi du Barzelonaren kontra eta biziki kontent niz. Bere etxerat joan niz:

« Egun on Asiensio, egun irabazi duzie eta kontent niz ziendako.

—Bai, ni ere kontent niz irabazteaz.

—Barzelonako jokolariak usu azkarrenak dira. Ez adiorik Asiensio! ».

Bat-batean Asiensio hil da. Partida bat bazuen, anbulanzia jin da bainan berantegi zen.

Peio handitu da eta futbolaria bilakatu da. Realen ari da. Egun Pariseren kontra irabazi dute 2-0. Haur bat jin da bere ikustera:

« Egun on Peio... »

ELIOT LARRIEU

Ortzaizeko Ikastola (Ortzaize). 3. urtea

LMko LEHEN SARIA

Kutxa magikoa

Behin batean Urkok bere amarekin etxe bat erosi zuen.

Egun batez, bere ohetik jeistean, zolan soinu bitxiak entzun zituen. Azkenean, soinu bitxiak nundik etortzen ziren atxeman zuen. Orduan, parketea altxatzen hasi zen eta kutxa bat atxeman zuen. Barnean haziak ikusi zituen.

Ondoren bere baratzean landatu zituen. Landatzen ari zenean, bere buruan pentsatzen hasi zen nahi zuela bere aitak lore horiek ikustea oso politak zirelako.

Lorea ideki zenean, bere aitak atean jo zuen.

Ondorioz, Urko konturatu zen haziak magikoak zirela nahiak egi bihurtzen zituelako.

Geroztik lagun asko gonbidatu zituen nahiak eskatzera.

KETI HALSOUET

Urruñako Ikastola (Urruña). 5. urtea

LMko OHOREZKO AIPAMENA

Xakurra edo lapina

Ene xakurra biziki bitxia da, nahi duzue jakin zendako ?

Gaur goizean ikastolarat joan aintzin hasi da jauzika gelditu gabe! Geroago eguerditan ene barazki guziak jan ditu! Amari erran diot:

« Ama, segur zira hartu dugula xakurra eta ez lapina? ».

MAIXA IGOA

Ortzaizeko Ikastola (Ortzaize). 5. urtea

LMko OHOREZKO AIPAMENA

Bixkotx ona!

Arrats batez bazen neska bat deitzen zena Lui-xa.

Bazen ere gatu bat biziki kokina, ikusten bazuen bixkotx bat ukaldi batez jaten zuen.

Gaur eni amak galdetu dau Ttanttaren zorionak ospatzeko bixkotxa zaintzea.

Ni dardarka ari naiz gatu hor gaindi baitabil. Gatu zezena bezala azkarra da!

« Kasu jaten baduzu bixkotxa... »

Eta erantzuten dau:

« miau miau !!! ».

Geroxago ikusi dut gatu lo dagoela.

« Bon, abian naiz leihoen hestera ganbarat !! »

Eta artean gatuak bixkotxa jan du eta azke-nean tripa potoloa du.

Ni behartua senditu naiz beste bixkotx bat egitea tarrapatan !!! ama jin aitzin !

MARTTA ERROTABEH
Ortzaizeko Ikastola (Ortzaize). 4. urtea
LMko OHOREZKO AIPAMENA

Iparraldea **B**igarren **M**aila



BASTIEN **B**RISE
PEIO **B**IREMONT
MIKEL **A**NXOLABEHERE
MAÑUEL **I**BARLUCIA

Behien eta xerrien arteko injustizia

Bazen behin Lohitzuneko baserri batean, behi gaixo bat.

Biharamunean, al baitari bat ikusi zuen. Erran zuen:

«Hiru egunen buruan ez bada hobeki, hil beharko duzu».

Baina xerriak dena entzun zuen. Beraz xerriak erran zuen:

«Behi, xutitu behar zira!». Baina behia biziki gaixoa zen.

Bigarren egunean xerriak erran zuen:

«Behi xutitu behar zira!». Baina behia biziki gaixoa zen.

Hirugarren egunean xerriak erran zuen:

«Behi xutitu behar zira, bestela, hila izanen zira!».

Beraz, behia xutitu zen. Beraz, baserritarrak erran zuen:

«Besta egin behar dugu, xerri hil dezagun!».

BASTIEN BRISÉ

Amikuzeko Kolegioa (Donapaleu). 5. urtea

BMko LEHEN SARIA

Onddo handiena

Egun batez, Gorkak aurkitu zuen onddo handi handi handi bat. Nahi zuen bildu bainan ez zen sartzen bere saskian. Orduan, joan zen bere orgatxo xekatzera bere etxerat. Berriz etorri zen eta onddoa ez zen ere sartzen.

Beraz, joan zen bere auzoaren traktorearen xekatzera. Itzuli zelarik bere onddoaren lekuan bare lodi lodi lodi bat bazen eta erranzion Gorkari: «Sobera berant da, orai nerea da».

PEIO BIREMONT

Errobi Kolegioa (Kanbo). 4. urtea

BMko OHOREZKO AIPAMENA

Txanogorritxoren abentura

Behin batean, Txanogorritxo eskapatzen ari zen otsoak nahi baitzuen klikatu. Txanogorritxo sartu zen etxera eta atea trabatu zuen babesteko. Otsoa hasi zen atean ufaka eta pusa.

Krask, krask, krask, entzun zen teilatuan. Plik, plak, txxxxx! Zalukara, Txanogorritxok dupina ideki zuen eta plaust! Zerbait erori zen ur irakinera. Berriz tapatu zuen eta sua azkarrago eman.

Txanogorritxo biziki kontent zen. Emeki-emeki, dupina ideki zuen. Ur-gainean ikusi zuen xapela bat. Bai eta kartuxa-untzi bat eta arma luze bat. Irria sartu zitzaion. Burua itzuli eta otsoa ikusi zuen, irri maltzur bat muturrean. Otsoak ezpainak milikatu zituen, leiho gibeletik...

MIKEL ANXOLABEHERE

Jean Pujo Kolegio Publikoa (Baigorri). 6. urtea

BMko OHOREZKO AIPAMENA

Harrizko begiak

Behin bazen gizon bat Beñat deitzen zena. Galdu zuen bere emaztea urte bat lehenago. Biak aste guziz joaten ziren oihan batetarat. Bere emaztea desagertu eta, ez zen gehiago joan.

Bere emaztearen desagertzearen urtebeteztearendako berriz joan zen oihanerat eta arbola handienaren ondoan ezagutu zuen bere emaztea lurrean. Ez zen mugitzen eta begiak hetsiak zituen. Bere bisaiatik hurbildu zen. Begiak kolpe batez ideki ziren eta xuri-xuriak ziren. Beñatek begiratu zituen eta bere azala harrizkoa bilakatu zen.

MAÑUEL IBARLUCIA

Errobi Kolegioa (Kanbo). 3. urtea

BMko OHOREZKO AIPAMENA

ESKER HITZAK



ZURIÑE HIDALGORI gure eskerrik beroenak, sari banatze ekitaldietan hain prestuki eta goxo laguntzeagatik eta bere alea ekartzeagatik.

Calasanz-Escolapios Ikastetxeari, Lekarozko BH Institutuari eta Ortzaizeko Ikastolari beren etxeko atea irekitzeagatik ekitaldi horiek egiteko.

Nafar Gobernuako Hezkuntza Saileko ordezkari, gure ekimen honen sustatzeagatik eta Nafarroako Ikastolen Elkarteko eta Seaskako ordezkari, gurekin bat egiteagatik.

Eta esker mila bihotzez, nola ez, parte hartu duten ikasle guztiei, eta bereziki irakasle guztiei, haien gogoia eta bultzada ezinbestekoak baitira emaitza honelako lortzekotan.

Aurkibidea

Epaimahaiaren akta.....	5
-------------------------	---

Sortzean aske naiz

ZURINE HIDALGO.....	11
---------------------	----

D EREDUAN, LEHEN HEZKUNTZAKO KATEGORIAN

Bera horrela sentitzen da,

<i>berak horrela izan nahi du.</i> JAGOBA ARANBARRI RIA	17
---	----

<i>Gabonetako ametsak.</i> AIZEA JARAUTA ALVAREZ	18
--	----

<i>Berdintasuna.</i> JUNE IGUIÑEZ RUIZ	19
--	----

<i>Lore botoiduna.</i> ARATZ ELIZALDE DOMINGUEZ.....	20
--	----

D EREDUAN, BIGARREN HEZKUNTZAKO KATEGORIAN

<i>Oroimena.</i> XABIER LOPEZ ZABALETA.....	23
---	----

<i>Hiltzailea.</i> AITOR OVEJERO CASTILLO	24
---	----

<i>Bortz-aketa.</i> MADDALEN IBARRA SAN MARTIN	25
--	----

<i>Ezusteko sorpresa.</i> IZASKUN ARANGUREN YABAR	26
---	----

A EREDUAN, LEHEN HEZKUNTZAKO KATEGORIAN

<i>Nire txori bihurria.</i> XABIER VILLANUEVA CALVO	29
---	----

<i>Arkatza.</i> NOA GARCIA CASTAÑARES	30
---	----

<i>Eroski.</i> NEREA ERVITI ADRIÁN	31
--	----

<i>Hau negua!</i> AIMAR LEGAZ LEZAUN.....	32
---	----

A EREDUAN, BIGARREN HEZKUNTZAKO KATEGORIAN

<i>Lukas eta armairua.</i> IKER SÁNCHEZ MACÍAS	35
<i>Koloreen Usaina.</i> NATALIA MURILLO URIZ	36
<i>Lapurretak museoan.</i> IOAR HERRERO MARCILLA.....	37
<i>Arrantzale zoriontsua.</i> LUCÍA ORDÓÑEZ RUIZ	38

IPARRALDEKO IKASLEEN LEHEN MAILAKO KATEGORIAN

<i>Ene futbolari hoberena.</i> ELIOT LARRIEU	41
<i>Kutxa magikoa.</i> KETI HALSOUET	42
<i>Xakurra edo lapina.</i> MAIXA IGOA.....	43
<i>Bixkotx ona!</i> MARTTA ERROTABEHHERE	44

IPARRALDEKO IKASLEEN BIGARREN MAILAKO KATEGORIAN

<i>Behien eta xerrien arteko injustizia.</i> BASTIEN BRISÉ..	47
<i>Onddo handiena.</i> PEIO BIREMONT	48
<i>Txanogorritxoren abentura.</i> MIKEL ANXOLABEHHERE..	49
<i>Harrizko begiak.</i> MAÑUEL IBARLUCIA.....	50

Mikro-ipuinak 2017

liburuaren inprimaketa 2018ko
maiatzean burutu zen
Rodona Industria Gráfica moldiztegi-
an, fotokonposiziorako
A Garamond, Myriad eta Lance
letra motak erabiliz.
Lehenbiziko edizio hau
bi mila eta bostehun alekoa
izan da.



